

LifeStraw: ura edangarri bihurtzen duen tutua, ezinbesteko asmakizuna !

Gure planetan ur edangarria urria da, gainera kutsatua egoteko probabilitatea geroz eta handiagoa da. Dudarik gabe **LifeStraw** bezalako asmakizunak, zerutik jaitsiak direla dirudite.

Bereziki, garatzeko bidean dauden herrialdetarako balio du. Hirugarren munduan, 6000 pertsona hiltzen dira egunero ur kutsatuak erangindako gaixotasunen ondorioz. Aparatu honek hiltzen dituen bakterien artean *Salmonella*, *Shigella*, *Enterococcus-a* eta *Staphylococcus-a* daude, honi esker Colera, Difteria eta Diarrea bezalako gaixotasunak ekidi daitezke. Gainera merkea da: 3 dolar baino gutxiago balio du ale bat fabrikatzeak.

Txikia eta arina da, 25 cm neurtzen ditu eta 100 gramoko pisua du. Ura zurgatzerakoan, kentzen zaizkio ezpurutasunak, zulo nimiñoak dituzten 7 filtroetatik pasatzerakoan. Zulotxo hauek hain dira txikiak, txikienak 6 mikron bakarrik dituela. (ideia bat egiteko, ile batek 50-100 mikroneko lodiera du) Filtroek ere yodo eta karbono aktiboko erretxina daukate. Guzti honi esker bakterien %99,999 eta birusen %98,7 uretatik banatzen du.



Aparatu honen bizitza urte batekoa da, hau da, gai da urte baten pertsona batek behar duen ur kantitatea garbitzeko (700 litro).

LifeStraw-a Vestergaard Frandsen enpresa danimarkarrak diseinatu zuen. Enpresa honek 1957-tik jardun du garatzeko bidean dauden herrialdetako biztanleen bizitza hobetzen duten tresna sinpleak asmatzen. Produktu hauen artean, PermaNet (bizitza luzeko eltxo-sarea) eta Zerfly izeneko plastikozko aterpea daude, (LifeStraw- az aparte, noski). Erakutsi dute nola negozio bat errentagarria izan daitekeen solidarioa eta beharrezkoa den bezala.

Oraindik ez da perfektua, (produktua hobetzen ari dira) zeren hainbat birus eta metal oraindik ezin ditu uretik banandu. Hala ere, oso lagungarria izaten ari da: 100.000 banandu dira, gehienak Cachemirako terremotoaren biktimen artean. Baita, oso erabilgarria izan daiteke, adibidez, kalitate oneko ura ez dagoen leku batera doan turista batentzat.

Informazio gehiago:

<http://www.vestergaard-frandsen.com/lifestraw.htm>